# MAISU MAISTRAK STEE-EILAS

## LHko EPE 2009

# **Urteko Programazioa** eta **Unitate Didaktikoa**





| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☏ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☏ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☏ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☏ 948 21 23 55 | 🖷 948 27 00 48 | nafarroa@stee-eilas.org |







LOE lege organikoa da. Estatu espaniar osora zabaltzen da, baina komunidade bakoitzak garatzeko eskubidea dauka.

# Aldaketarik nabarmenenak (1)

1. Curriculum bakarra oinarrizko hezkuntzarako (6-16 urte)
2. Konpetentziak dira curriculumaren ardatza.
3. Printzipio pedagogikoak (10. artikulua, kontuan hartzekoak)

   Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.

   Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarriz gaitasunak (ikasleei helarazteko) transferitzeko bidea eta jakintz arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.

1.- Lehenengo aldiz ezarriko da curriculum bakarra derrigorrezko hezkuntza osorako.

Oinarrizko Hezkuntzarako curriculum gisa definitzen da curriculuma.

Ikasleek lortu beharreko helburu eta konpetentziak hezkuntza-etapa horren amaierako lortzea du helburu.

2.- KONPETENTZIAK DIRA ARDATZA:

KONTUZ IBILI TERMINOLOGIAREKIN:

Dekretuan EZ DA KONPETENTZIA HITZA erabiltzen, itzulpenean GAITASUN hitza erabili da.

Terminologia ez nahastesko konpetentzia hitza erabiliko dut: konpetentzia= comptenecia; gaitasuna= capacidad.

Printzipio pedagokikoak (10 artikuluan agertzen direnak)

1.– Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta **kontzeptuzko,prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.**

2.– **Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea**

eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.

3.– Ikastetxe-eredua hezkuntza-komunitatera eta,oro har, gizartera irekitzen ari dela, beharrezkoa da ebaluazioaren parte hartzea handitzea.

4.– Familiek eta irakasleriak parte-hartze eta inplikazio handia izan behar dute eskola-antolamenduan, eta indartu egin behar da irakasleen hezitzaile-izaera. Hala, bermatu egin behar da Haur Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa.




**XEDEAK** (finalidades): Oso orokorrak

**GAITASUN OROKORRAK** 6 dira. Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira. Hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan.

Adibidez:

*Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, eta, zehazki,nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohituraosasuntsuak hartzea, seguru sentitzeko. Izadiaz eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.*

**OINARRIZKO GAITASUNAK: 8 dira. HAUEK DIRA KONTUAN HARTU BEHAR DIRENAK UNITATE DIDAKTIKOETAN**

**OINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK** Hezkuntza gaitasun orokorrak oinarri bezala hartuta, bakoitzerako hiru helburu zehazten dira. Oinarrizko Hezkuntza bukatzean lortu behar direnak.




JAKINTZA ARLOAK:

-Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera.

– Arte Hezkuntza (Musika eta plastika batera)

– Gorputz Hezkuntza.

– Gaztelania eta Literatura.

– Euskara eta Literatura.

– Atzerriko Hizkuntza.

– Matematika.

- Hirugarren zikloko azken mailan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren arloa gehituko da.




http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/eu/

DEKRETUAN kontatzen dena:

1. Kapitulua; Xedapen orokorrak: Xedea, aplikazio eremua, antolamendu prontzipioak, hekuntza-xedeak, gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak

2. Kapitulua: Curriculumaren antolamendua: Pedagogia printzipioak, jakintza-arloak, elebitasuna eta eleaniztasuna, ordutegia…

3. kapitulua: Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua eta curriculum Proiektua

4.- Aniztasunaren trataera: neurriak eta programak

5.- Ikasleria, ebaluazioa mailaz igarotzea eta titulazioa (diagnistiko-ebaluazioa

Xedapen gehigarriak

Xedapen indargabetzailea

**ZER IRAKURRI: (Comic Sans letra motarekin aurkezpenean)**

* Dekretuaren 1. kapitulua

* III eranskina: oinarrizko gaitasunak

* Arloa (programazio didaktikoarena).

Helburuak

Arloak konpententziei egiten dien ekarpena

Proposamenean aurkeztuko den zikloko edukiak eta ebaluatzeko irizpideak




Roser Canals:

Capacidad de utilizar conocimientos y habilidades de manera transversal interactiva en contextos y situaciones diversas para ejercer como un ciudadano y resolver situaciones y problemas de la vida cotidiana.

Antoni Zabalaren definizioa:

ES LA CAPACIDAD O HABILIDAD (QUE)

DE EFECTUAR TAREAS O HACER FRENTE A SITUACIONES DIVERSAS

(PARA QUE)

DE FORMA EFICAZ (DE QUE MANERA)

Cómo aprender y enseñar competencias (colección 11 ideas claves Graó)




**Una competencia es** un conjunto de *recursos potenciales* (saberes, conocimientos, capacidades, habilidades, experiencias y actitudes) que posee y es capaz de **integrar** una persona para enfrentarse a diferentes tareas o problemas propios de los variadoscontextos o escenarios sociales en los que se desenvuelve.

(Adaptado de Monereo y Pozo, 2007)

## GEHIAGO JAKITEKO:

### Nosotros competentes/Nosaltres Competents

Para una educación basada en competencias (bloga)

http://competentes.wordpress.com/2008/12/29/competencia-matematica-2/

### ¿Qué son competencias?

http://www.boletinsantillanadocentes.com/index.php?option=com_magazine&func=show_edition&id=11&Itemid=

### Las competencias en la educación escolar

Monográfico Aula Innovacion Educativa

161 zenbakia




1.– Se entiende por competencias básicas la **combinación integrada de conocimientos, destrezas y habilidades, actitudes y valores adecuados al contexto**, que precisa todo el alumnado que cursa la Educación Básica y que debe alcanzar para su realización y desarrollo personal, así como para la ciudadanía activa y la integración social.




## JAKINTZA -ARLOAK ETA KONPETENTZIAK

<table>
<tr><th>KONPETENTZIA</th><th colspan="2">ARLOA</th></tr>
<tr><td>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna</td><td colspan="2">-Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera</td></tr>
<tr><td>Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.</td><td colspan="2">Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza<br>Ingurunea</td></tr>
<tr><td>Matematikarako gaitasuna</td><td colspan="2">– Matematika.</td></tr>
<tr><td>Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.</td><td colspan="2">Arte Hezkuntza</td></tr>
<tr><td>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.</td><td>Hizkuntza</td><td rowspan="4">ZEHARKAKOAK</td></tr>
<tr><td>Ikasten ikasteko gaitasuna.</td><td rowspan="3">Arlo guztietan dute eragina</td></tr>
<tr><td>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.</td></tr>
<tr><td>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.</td></tr>
</table>

# ONDORIOAK

- Arlo bat garatzen dugunean oinarrizko konpetentziak garatzen ari gara.
- Konpetentziak  edukien bidez lantzen dira eta ez dira berez ebaluagarriak .
- Proiektuek konpetentziak garatzen laguntzen dute.
- *Zeharkako konpetentziak* sartzen ahalegindu behar dugu.
- Indarrean dauden arlokocurriculumek ondo zehazten dituzte edukiak eta ebaluatzeko irizpideak zikloka.
- Gure progamazioetan ez dira aldaketa asko sartu behar.

# URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO IRADOKIZUNAK

## A.- ZER DIO DEIALDIAK?

* **Arlo**, gai edo modulu **baten curriculumari buruzkoa** izango da.
* **Zehaztu** beharko dira: **helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta metodologia, eta hezkuntza-laguntza behar bereziak duen ikasleriarentzako arreta**.
* Espezialitate horretako irakasleriak irakasteko gaitasuna duen maila edo hezkuntza-etaparako **ikasturte osokoa** izango da.
* Gehienez **50 orrialdeko luzera** (DIN-A4 formatua, alde bakarretik, lerro artean tarte bikoitzaeta letra mota “arial” 12 puntu) edukiko du.

**Eranskinik ez da egongo.**

* **Gutxienez, zenbakiturik** egongo diren **15 unitate didaktiko** edukiko ditu.

## B.- ZER SARTU PROGAMAZIOAN: ATALAK

*AURKIBIDEA*

*SARRERA (justifikazioa)*

*PROGRAMAZIOAREN KOKAPENA (Testuingurua)*

HELBURUAK

EDUKIAK

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

METODOLOGIA

ANIZTASUNARI ARRETA

UNITATE DIDAKTIKOAK

stee-eilas

## C.- PROGRAMAZIOA ATALEZ ATAL: IRADOKIZUNAK PROGRAMAZIOA EGITEKO

AURKIBIDEA

### 1.- SARRERA ETA KOKAPENA

Sarrera:

*Programazioaren ezaugarriak: arloa eta ikasmaila

*Erreferentziak curriculum berriari: programazioaren oinarriak eta Curriculum ofizialarekiko lotura.

**Irakurri curriculumaren arloaren sarrera**

Kokapena:

* **Ikastetxearen** ezaugarriak

Kokapena: hiria, herria…

Tamaina: zenbat talde, zenbat ikasle, zenbat irakasle…

Eskuartean daramazkien erronkak: Prestakuntza-, Berrikuntza- zein bestelako proiektuak (Elkarbizitza-, Kulturartekotasuna-, Normalkuntza, XXI agenda, IKTBen erabilera…) Erronka horiek irakasgaiaren programazioan duten eragina

Inguru Soziokulturala

* **Ikastaldea** :: zenbat ikasle, **Ikasleen lehen hizkuntza**, ezaugarriak. Hezkuntza premia bereziak dituztenak ba al dira?

stee-eilas

HURRENGO ATALAK GARATZEKO MATERIAL EGOKIAK:

ARLOKO CURRICULUMA

ARGITALEETXEETAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK:

EREIN: Matemática, euskara, ingurunea
ANAYA-HARITZA: Euskara
ELKARLANEAN: proposamen integratuak lantzen diyu: ingurune eta euskara.

## 2.- HELBURUAK

PROGRAMAZIO OSORAKO HELBURUAK

Orokorrak dira, erreferentzia egiten diote arlo osoari.

## 2.- HELBURUAK

NONDIK HAR DAITEZKE:
Begiratu arloko helburuak eta egokitu zuen ikasleen egoerara.

Egokia izan daiteke zikloko ebaluatzeko irizpideak kontsultatzea helburuak definitzeko.

NOLA FORMULATU:

| INGURUNEKO CURRICULUMA | PROGRAMAZIOAN |
|---|---|
| Talde-jardueretan parte hartzea, betiere erantzukizunaz eta era konstruktiboan jokatuz; besteei lagunduz eta elkartasunez jokatuz; funtzionamendu demokratikoaren oinarrizko printzipioak aplikatuz; guztion helburuak lortzeko norberaren eta besteen ekarpenak balioetsiz, eta elkartasunez komunitatearen alde eginez inolako bereizkeriarik gabe (generoan, arrazan, kulturan, erlijioan edo beste edozertan oinarritutako diskriminaziorik gabe) | Talde-jardueretan **parte hartzea,** betiere erantzukizunaz eta era konstruktiboan jokatuz, besteei lagunduz eta elkartasunez jokatuz; |

## 3.- EDUKIAK

Erabili curriculuma,  ondo sailkatuta baitaude zikloka.

Gogoan izan eduki horiek unitate didaktikoetan garatuko direla.

Aztertu eta aukeratu programazioan landuko direnak.

Edukiak ez dira bereizten (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) curriculumean, beraz, zuk aukeratu erosoen egiten zaizun modua.

stee-eilas

## 4.- EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluatzeko irizpideek lotura zuzena dute helburuekin.

Hauek izan daitezke konpetentzien garapen-maila zehazten dutenak.

Curriculumak ebaluatzeko irizpide bakoitzarekin batera adierazleak gehitzen ditu, ebaluatzeko irizpidea zehazteko.

Adibidez,

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA | 11. Hainbat testuingurutan, talde-lanean **aritzen da** helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik. |
| ADIERAZLEAK | 11.1. Ea aktiboki hartzen duen parte talde-lanean.<br>11.2. Ea trukatzen dituen ideiak, sentimenduak eta proposamenak.<br>11.3. Ea taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen den lankidetzan.<br>11.4. Ea egiaztatu eta balioesten dituen beste pertsona batzuek emandako azalpenak.<br>11.5. Ea aurrera egiten duen adostasunak lortzeko elkarrizketa- eta komunikazio-estrategia eraginkorrak erabiltzen, jardunbide demokratikoaren oinarrizko printzipioak betez.<br>11.6. Ea bere ideiak era lasai eta baketsuan defendatzen ikasi duen, baina uste osoz. |

## 5.- METODOLOGIA

Oinarrizko printzipio metodologikoak sartu arloari egokituak

**Berritzegune Nagusiak honakoak aipatzen ditu konpetentziak garatu ahal izateko:**

**ESTRATEGIAS METODOLÓGICAS (Decálogo básico)**
1.- Generar un ambiente propicio en el aula.
2.- Facilitar el aprendizaje activo.
3.- Motivar hacia el objeto de aprendizaje.
4.- Favorecer la autonomía del aprendizaje.
5.- Favorecer el uso integrado y significativo de las TIC.
6.- Favorecer el uso de fuentes de información diversas.
7.- Favorecer la comunicación oral o escrita de lo aprendido.
8.- Impulsar la evaluación formativa.
9.- Favocer la utilización de organizaciónes diferentes del espacio y del tiempo.
10.-Impulsar la funcionalidad de lo aprendido fuera del ámbito escolar.

Beste gai batzuk izan daitezke:

stee-eilas

- ikas-jardueren oinarriak
  - o Esanguratsuak izan daitezen
  - o Prozedurazko izaerari erantzun
  - o Era desberdinetako osagaiei (edukiei) erantzun dietenak
- Taldekatzeko moduak eta horiek baliatzeko irizpideak

  Talde handia: azalpen orokorrak, lanen aurkezpenak, adostea...

  Talde txikia (Heterogenoak): lan kooperatiboa, parte hartzaileen lana banatu...

  Bikoteko lana: lan kooperatiboa

  Bakarkako lana: Ikasitakoa bereganatzeko, ondorioak atera
- Jarduera motak eta irizpideak
- Espazioen erabilera
- Baliabideak
  - o IKTen erabilera

    Informazioa lantzeko

    Emaitzak argitaratzeko komunikatzeko

    Harremetan jarduteko
  - o Informazio iturri ugari

    Idatziak: testu-liburuak, ezagutza-liburuak, testu sozialak (dibulgazio-argitalpen espezializatuak, aldiroko prentsa orokorraren atal espezializatuak

    Ikus-entzunezkoak: Audio Bideo grabazio komerzialak, Hedabideetatik hartutakoak

    Euskarri informatikokoak: CD eta DVD-Romak, Internetekoak

**6.- ANIZTASUNAREN TRATAERA.**

Irakurri curriculumak proposatzen duena arreta berezia eskatzen duten ikasleentzako (dekretuaren IV kapitulua)

Egin erreferentzia zuzena ikasleen ezaugarriei, eta saiatu bultzatzen ikasleen integrazioa eskola inklusiboak proposatzen duen ildotik

Aniztsun horren barruan ikasle heldu.berriak (etorkinak) egon daitezke.

stee-eilas

## 7.- UNITATE DIDAKTIKOAK (PROGRAMAZIO OROKORREAN)

| IZENBURUA | HELBURU DIDAKTIKOAK | Azpititulua Unitatearen ardatza |
|---|---|---|
| 1.- | | |
| 2.- | | |
| 3.-- | | |
| | | |

<table>
<tr><td colspan="6">1.- UNITATEAREN IZENBURUA:</td></tr>
<tr><td colspan="3">HELBURU DIDAKTIKOAK</td><td colspan="3">EBALUATZEKO IRIZPIDEAK</td></tr>
<tr><td colspan="3">-<br>-<br>-<br>-<br>-</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td colspan="6">EDUKIAK</td></tr>
<tr><td colspan="2">-<br>-<br>-<br>-</td><td colspan="2"></td><td colspan="2"></td></tr>
</table>

**Kontuan hartu: Aipatu zeharkako konpetentzei lotutako edukiak.**

**b) Ikasten ikasteko gaitasuna.**

**d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (hizkuntza).**

**e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.**

**h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.**

stee-eilas

ZER DIO DEIALDIAK?

Unitate didaktikoa prestatzerakoan honakoak zehaztu behar dira:

Helburu didaktikoak
Edukiak
Irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak
Ebaluazio-prozedurak
Erlazionatutako oinarrizko gaitasunak eta horien garapena

MATERIALAK HARTZEKO:

TESTU-LIBURUAK:
EREIN
ELKARLANEAN
ANAYA-HARITZA

BESTELAKOAK:

CEIDA
BERRIKUNTZA.net
Arloak
Materialak

WEBQUESTak:

http://www.proarabatic.org/webquest/index.htm
http://www.elkarrekin.org/publicwebquest

# ZER DA UNITATE DIDAKTIKO BAT?
## (Definizio batzuk, 2)

La unidad didáctica es una forma de planificar el proceso de enseñanza-aprendizaje alrededor de un elemento de contenido que se convierte en eje integrador del proceso, aportándole consistencia y significatividad. Esta forma de organizar conocimientos y experiencias debe considerar la diversidad de elementos que contextualizan el proceso (nivel de desarrollo del alumno, medio sociocultural y familiar, Proyecto Curricular, recursos disponibles) para regular la práctica de los contenidos, seleccionar los objetivos básicos que pretende conseguir, las pautas metodológicas con las que trabajará, las experiencias de enseñanza-aprendizaje necesarios para perfeccionar dicho proceso» (Escamilla, 1993, 39).

La unidad didáctica o unidad de programación será la intervención de todos los elementos que intervienen en el proceso de enseñanza-aprendizaje con una coherencia metodológica interna y por un período de tiempo determinado» (Antúnez y otros, 1992, 104)

**...Es importante que, durante la planificación de un tema o de una unidad didáctica, pensemos en términos de secuencia formativa porque nos aportará una perspectiva más global del proceso educativo y nos facilitará la tarea.**

Resumiendo, es la unida básica de programación

# ZER DIRA? (3)
## (Definizio batzuk)

**Los términos *proyecto, tarea, secuencia* y *unidad didáctica* se usan a menudo como sinónimos para definir un dispositivo didáctico propio de los denominados *currículos procesuales* Por tanto, las actividades y los contenidos que se programan tienen sentido en ese contexto y adquieren su significación precisamente en la globalidad y en la complejidad del mismo.**

**UNITATE DIDAKTIKOA:**

**Jarduerak GAI baten inguruan antolatzen dira.**

**PROIEKTUA: Jarduerak AZKEN EKOIZPEN ERREAL bat egiteko antolatzen dira.**

**ATAZA: EKOIZPEN ERREALA (motza izaten da).**

**Asko erabiltzen da hizkuntzen irakaskuntzan.**

## EZAUGARRIAK

**Helburu zehatzak izan behar ditu (helburu didaktikoak), curriculum ofizialari lotuak.**

**Ikasleen errealitatera egokitu behar dira eta moldaketak onartzen ditu.**

**Ebaluazio mota desberdinak integratzen ditu: hasierakoa, etengabekoa, unitate beraren ebaluazioa**

**Prozesuan egokitzapenak onartzen ditu.**

# SARRERA

A.- *Justifikazio teorikoa*

- *Zer da niretzat unitate didaktiko bat?*
- *Proiektua aukeratzen bada zergatik hori?*
  *Ikaskeekin negoziatzen delako*
  *Motibagarriak delako*
  *Aniztasunari hobeto erantzuten diolako*
  *Talde-lana bultzatzen duelako...*

.

B.- Testuinguratzea

- Unitatearen izenburua
- Zergatik arlo eta gai hori?
  Saiatu eguneroko praktikarekin lotzen
  Programazio orokorrarekin izan dezakeen loturak
- Nori zuzendua: ikasmaila, eredua…

Ikasleen ezaugarriak: ( **Ikasleen lehen hizkuntza**, ikasleen ezaugarri orokorrak, aniztasunaren trataeran kontuan hartzeko ikasleak)
Oso garrantzitsua da hau ondo zehaztea.

*C.- UNITEAREN ESKEMA edo BIZKAREZURRA*

*PROIEKTUA: MUNDUKO HABITATEN LIBURUA EGITEA*

| *LAN SEKUENTZIA* | *JARDUERAK* |
|---|---|
| *Aurreko ezagutzak* | *1.- Galdetegia egin*<br>*2.- Munduko mapan kontinenteak identifikatu* |
| *Gaiaren motibazioa eta negoziazioa* | *1.- Unitatean landuko duguna azaldu eta adostu*<br>*Zer egingo dugu proiektu honetan azalduko dugu.*<br>*Denen artean adostu nola egingo Dugu.*<br>*Egin behar dugunaren eredu bat erakutsiko dugu.*<br>*2.- Fitxa bete:*<br>*Zer dakit/ zer ikasi nahi dut* |
| *Habitatak munduan kokatzen* | *1.- Habitat desberdinak aztertu bibliografietan aipatzen diren liburuetan. Oinarrizko hiztegia birpasatu.*<br>*2.-Habitatak kokatu munduko mapan, aurrena taldean, ondoren bakoitza emandako fitxan* |

AIPATU aurretiko ezagutza beharrezkoak unitatea garatzeko.

# 1.- HELBURUAK

Proiektua bada, azken xedea aipatuko dugu.
Helburu orokorrak planteatzen badira baditugu, saiatu arloko helburuekin lotzen.

Helburu didaktikoak

- Gaitasunak (kognitiboak, afektiboak, sozialak…) garatzen laguntzen dute: *ulertzea, ezagutzea, konparatzea, aztertzea, erlazionatzea, parte hartzea, eztabaidatzea, baloratzea , disfrutatzea...*
- Hiru eduki motei egiten diete erreferentzia.
- Ondo definitu behar dira, horiek izango baitira ebaluatzeko irizpideen oinarria.
- Edukien gida izaten dira.
- Aniztasunari egokitu daitezke: oinarrizko batzuk planteatu ikasle guztiek lotu behar dituztenak, eta beste batzuk zabaltzekoak edo sakontzekoak.

OHARRA: Euskaraz argitaletxeek modu askotan definitzen dituzte, baina joera dago horrela definitzeko:

*Klima eta habitaten arteko erlazioa ulertzea*

stee-eilas

*AHOLKUA: Aurrena edukiak aukeratu eta ondoren helburu didaktikoak idatzi.*

## 2.- EDUKIAK

- Izenen bidez formulatzen dira (ulermena, sailkapena, konparazioa…)
- Prozedurazko edukiak, garrantzi gehiago dutenez, aurrenak izendatu.
- Prozeduretan hainbat estrategia sartu: informazioaren bilaketa, laburpena, sailkapena….
- Saiatu hiru edukien arteko oreka mantentzen.
- Sartu zeharkako konpetentziei lotutako edukiak
- Sartu hizkuntzari lotutako edukiak, batez ere unitatea ikasleen L2n garatzen ari bada.
- Taula batean jar daitezke.
- Azpimarratu daitezke zeintzuk diren oinarrizkoak, sakontzekoak, zabaltzekoak...

## 3.- IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA JARDUERAK

**Metodologia atal honetan nabaritu behar da.**

Eskema:
Zer landuko da?
Nola landuko da? Materialak
Garapena

**HASTEKOAK**
**(aurretiko ezagutza)**
**GARATZEKOAK**
**(unitatearen garapena)**
**BUKAERAKOAK**
**(unitatea ixteko, Ebaluazioa)**

Ikas-jardueretan metodologiari aipamena egingo zaio: Kontuan hartu:

- Taldekatze mota desberdinak planteatu eta talde lana planteatzen dugunean: taldekideen artan lana banatu, horrela anizatsunari erantzungo diogu
- Diseinatu baliabide mota desberdinak planteatzen dituzten jarduerak: liburutegiko liburuen kontsulta; IKT-en erabilpena (zerbait bilatzeko, ekoizteko, erabiltzeko, prozeduraren bat ikasteko)

- Jarduera bakoitzaren bukaeran egindakoa, jarduera horretan ikasitakoa gogoratzeko denbora bat utzi.
- Hainbat jardueratan ikasleek lan proposamena desberdinak gara ditzakete.

Teoriak honakoa dio:

*Al elaborar las actividades conviene considerar que:*

- *ofrezcan contextos relevantes e interesantes;*
- *promuevan una actividad mental en el alumnado;*
- *presenten grados de dificultad ajustados y progresivos;*
- *estimulen la participación, solidaridad y no discriminación;*
- *integren contenidos de distinto tipo;*
- *puedan resolverse utilizando distintos enfoques;*
- *admitan niveles de respuesta y tipos de expresión diversos que propicien la participación de todos;*
- *admitan niveles diferentes de intervención del profesor y los iguales.*
- *admitan niveles diferentes de intervención del profesorado y de interacción en el aula.*

ADIBIDE BI IKAS-JARDUERAK AZALTZEKO:

1. ADIBIDEA

| | |
|---|---|
| Proiektua | HABITATEN LIBURUA EGITEA |
| Jarduera | Habitat desberdinak munduko mapan kokatu. |
| Denbora | Saio bat |
| Ideia gida | Habitat bakoitzak bere kokapen geografikoa dauka. |
| Materiala | Aurkitu animaliak oihanean liburua.<br>Munduko mapa. handia (fisikoa)<br>Munduko mapa ikasle bakoitzarentzat. |
| Garapena:<br>Zer egin<br>Zer eztabaidatu | Ekintza hau denen artean egingo dugu.<br>1.- Irakurri atal bakoitzaren izenburua. (Afrikako sabana, Europako basoa, Iparramerikako belardiak…)<br>2.- Eztabaidatu non uste duten koka daitezkeela habitat desberdinak munduko mapan (hori jakiteko zerri begiuratuko diogu?)<br>3.- Irudiak aztertu, munduko maparekin erkatu eta irudiek eta mapek ematen dituzten pistekin mapan markatu.<br>Mapa fisikoan aztertu kokapena, habitat bakoitzaren altuera…)<br>4.-Denen artean adostu koloreak zona bakoitza identifikatzeko. (maparen izkina batean jarri) Adostutakoa arbelean idatziko diogu.<br>5.- Mapa margotu.<br><br>Bukatu baino lehen gaur egindakoa gogoratuko dugu |
| Zer jaso | Munduko mapan habitat desberdinen kokapena: koadernoan idatziko dugu habitat bakoitza zein kontinetetan dagoen. |
| Jarduera osagarria | Habitat desberdinak munduko klimak agertzen den mapa batekin erka daitezke eta klima eta paisaiaren arteko erlazioa aztertu. |

ste-eilas

2. ADIBIDEA

Sarrera

Garapena, edo jardueraren azalpena




<u>1.- EBALUATZEKO IRIZPIDEAK</u>

Helburu didaktikoak hartu eta modu honetara formulatu:

Ikaslea gai da habitat desberdinak munduko mapan kokatzeko.

Ea ikaslea gai den habitat desberdinak munduko mapan kokatzeko.

(Helburu didaktikoetan jarritakoa, aprobetxatu daiteke ondoren proposatzen den autoebaluazioa egiteko).

Ebaluatzeko irizpideak mailakatu daitezke: Ea ikaslea bakarrik egin dezakeen, laguntzarekin…

<u>2.- NOIZ ETA NOLA</u>

UNITATEA HASI BAINO LEHEN: AURRETIKO EBALUAZIOA

Gaiari buruzko ezagupenak eta beharrezkoak diren aurretiko ezagitzak inferitzeko.

UNITATEA LANTZEN DEN BITARTEAN: ETENGABEKO EBALUAZIOA

Behaketa taula, ikasleen autokontrol fitxak...

UNITATEA AMAITU ONDOREN

Ebaluatzeko irizpideetan oinarrituta, ikasleen lana baloratuko da. Ikasleek ere autoebaluazioa egin dezakete.

stee-eilas

Mota askotako tresnak erabil daitezke: ekoiztutako lanak, frogaren bat...

3.- UNITATEAREN EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Unitatean jarduerek helburuetara bideratuta egon diren ala ez, egokitzapenak egin diren unitatearen zehar, beste lan-proposamen batzuk sortu diren

## 5.- OINARRIZKO GAITASUNAK

- Curriculma kontsultatu: Arloak oinarrizko gaitasunei egiten dien ekarpena.
- Eskema batez bidez adierazi:
- Oinarrizko konpetentziak:
  Unitatean lantzen diren ala ez eta zein edukiren bidez, taula batean.

| OINARRIZKO GAITASUNA | EDUKIAK |
|---|---|
| Hizkuntza gaitasuna | Azalpenaren ulermena |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

**Laguntzeko dokumentuak:**

**CONTRIBUCIÓN ÁREAS PRIMARIA AL DESARROLLO DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS**

**http://jcanamares.files.wordpress.com/2008/04/00ccbb-areas_primaria.pdf**

IKT GAITASUNA (konpetentzia) haur eta lehen hezkuntzan Euskal curriculumeko ebaluazio adierazleekin

**http://www.scribd.com/doc/8336238/IKT-GAITASUNAkonpetentzia-haur-eta-lehen-hezkuntzan-Euskal-curriculumeko-ebaluazio-adierazleekin-**

| GAITASUNA | Garatzeko trebetasunak | GAITASUNA | Garatzeko trebetasunak |
|---|---|---|---|
| **HIZKUNTZA gaitasuna** | - Ulertzea<br>- Ideiak asaltzea<br>- Elkarrizketan aritzea<br>- Testu-mota desberdiank erabiltzea | **IKASTEN ikasteko gaitasuna** | - Problameak identifikatzea.<br>- Autoebaluatzea.<br>- Ikas-prozesuak kudeatzea.<br>- Besteekin ikastea. |
| **GIZA ETA ARTE KULTURA gaitasuna.** | - Arte-hizkuntzaen bidez adieraztea.<br>- Aniztasun kulturala baloratzea. | **Autonomiarako Gaitasuna** | - Pentsamendu kritikoa garatzea<br>- Proiektuak, lanak planifikatzea<br>- Erabakiak hartzea<br>- Talde lanean aritzea<br>- Egoera berrietara egokitzea. |
| **IKT Gaitasuna** | - Informazioa bilatzea era aukeratzea.<br>- Informazioa era kritikoan analizatzea.<br>- IKT tresnak erabiltzea | **ZIENTZIA Gaitasuna** | - Gertaera naturalak identifikatzea<br>- Hipotesiak planteatzea<br>- Inguruarekin eta espazioarekin elkarregitea |
| **MATE Gaitasuna** | - Askotariko estrategiak erabiltzea problaemak ebazteko.<br>- Estimazioak egitea.<br>- Matematika-hizkuntza erabiltzea.<br>- Arraoiketa matematikoa garatzea. | **Gizarterako gaitasuna** | - Gertaerak analizatzea.<br>- Gatazkak konpontzen halegintzea<br>- Giza-trebetasunak garatzea. |

## 6.- BALIABIDEAK

Ikasleekin lantzeko materialak

Ikasleekin erabiltzeko material osagarriak: kontsulta-liburuak, web orriak...

Irakasleentzako materialak:
Kontsulta-liburuak, web orriak

IKASLEENTZAKO WEB GUNEAK MATERIALAK TOPATZEKO:

MATEMATIKA:
http://www2.elkarrekin.org/web/txerra/

Lehen Hezkuntzako Ikasleentzako web gune interesgarrien bilduma.
http://www.ikasguay.com/

Ekosistemak, lurra, soinua eta entzumena, eguzki-sistema)

http://www.elhuyar.org/unitate_praktikoak/index.html

Katalanez, baina material interesgarriak ditu

http://www.edu365.cat/primaria/index.htm

GOOGLE EARTH: Geografia lantzeko.

# MAISU MAISTRAK STEE-EILAS

Indarrak biltzeko, gure eskubideak defendatzeko, gure ahotsa entzunarazteko, informazioa izateko, aholkularitza sindikal eta legala izateko.

Oso erraza da, har ezazu nahi duzun bidea:

- -Fitxa hau bete eta egoitzara bidali.
- -STEE-EILASen webgunean sartu eta bertan dagoen fitxa bete eta e-mailez bidali.
- -Telefonoz deitu eta hemen agertzen diren datuak eman.

AFILIAZIO FITXA:

Izen-abizenak________________________________________________

NAN_________Helbidea_________________________________________

P.K_____Herria___________________Herrialdea____________________

Telefonoa(k)_________________________________________________

e-maila______________________________________________________

Haurreskola__________________________________________________

Jardun mota: osoa □ erdia □

Kontrato mota: EEPra arte □ ordezkapena □

Banku datuak:
Banketxe kodea________Sukurtsala________KD_____

Kontu zenbakia________________________________

Sinadura:


| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARABA: Fuente de los Patos 2 - 3.C | 01001 Gasteiz | ☎ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☎ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☎ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☎ 948 21 23 55 | 🖷 948 27 00 48 | nafarroa@stee-eilas.org |